



1.ALDIKO PROBLEMAK

1.- PUZZLEA

Ana eta Koldo neba-arrebei 2006 piezako puzzle bat oparitu diete.

“Bion artean egingo dugu –Koldok Anari – baina honako arau honi jarraituz: gutako bakoitzak, txandaka, 1, 2, 3 edo 4 pieza, nahi duen moduan, kokatuko ditu, eta irabazlea azken pieza ipiniko duena izango da. Neu hasiko naiz, ados?”

Zer erantzun behar dio Anak? Azaldu nork hasi behar duen eta horrek nola jokatu behar duen irabazteko.

2.- HOTELA


Hotel bateko okupazio-tasa %88koa da udako hiru hilabeteetan eta %45ekoa urtearen gainontzeko hilabete bakoitzean. Zein da okupazio-tasaren batez-bestekoa? Hoteleko jabeak okupazioko %60era iritsi nahi du eta horretarako eskaintza berezia egin du urteko azken hilabeterako. Zer okupazio-portzentaia lortu beharko luke abenduan %60a lortzeko?

3.- KAPIKUAK

- Zein da 3 zifrako zenbaki kapikuen kopurua? Eta zenbat 4 zifrakoak?
- Zure lagun bati 3 zifrako zenbaki kapikua guztiak batzea bururatu zitzaion, baina konturatu gabe zenbaki bat ahaztu zitzaion eta lortu zuen emaitza 49.137 izan zen. Zein izan zen ahaztu zitzaion zenbakia?

4.- NOLA IKUSTEN DUZU?

Hona hemen irudiko hiru kubotxoen aurretiko eta albotiko bistak :



Aurretik

Albotik

Margotu 3 kuboen kokapen guztiak aurretik eta albotiko bistek berdinarrai dezaten.

Beheko eskema baten antzekoa erabil dezakezu

